



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko apirila · 350 alea

TOKIKOM



SORALUCE



SORALUCE
JATORRIA ARDATZ



PIL-PILEAN 350

2019ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:

Egoitz Unamuno.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Arrate Gisasola
 - 6 **Begira** Itzulia
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 12 **Argazki bidez** Korrika
 - 18 **Erreportajea** Soraluze
 - 24 **Kirola** Sora Futbol Taldea
 - 26 **Kultura** Angel Mario Fernandez
 - 28 **Sakonean** Ana Mari Arizaga
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Alberto, Nicanor, Nikolas, Bittor, Jesus eta Juan Carlos
Ekonomia pizteko plana
 - 16 **Gutunak** M.V. *Motorrak*
babestutako gunean
Pili Valero *Usaina eta zikinkeria*
 - 16 **Hausnarketa** Zaborren arazoa
 - 17 **Zir(r)ika** Zaborrak
 - 17 **Puntua** David Lindemann
Kañoi-fabrika



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Ekonomia Pizteko Plana

ALBERTO, NICANOR, NIKOLAS, BITTOR, JESUS ETA JUAN CARLOS

2019 urtearen hasieran talde bat elkartu ginen Soraluzeke egoera ekonomikoak kezkatuta. Hilabete hauetan, gaia jorratu dugu eta gure ondorioak atera eta proposamenak egin ditugu.

Apirilean, egindako lana Udalarai aurkeztu diogu, zeozertan lagungarri izan daitekeelakoan. Orain, Pil-pilean aldizkaria baliatu nahi genuke herritarrak ere jakinaren gainean jartzeko.

Norabidea eta plana. Lehenik eta behin, iruditzen zaigu ekonomia funtsezko gaia dela: Soraluzeke ekonomia ondo ez badabil, edozein proiektuk izango du etorkizun eskasa.

Gainera, Soraluzek ez du soberako baliabide eta indarririk. Eraginkorrek izateko, indar guztiak bideratuko beharko dira norabide berean; ekintza solteek epe motzeko eragina izaten dute eta. Beraz, plan bat behar dugu: proiektuak, helburu zehatzak, egutegi zehatza eta, nahitaez, baliabide nahikoa. Gainera, planari jarraipen estua egin beharko zaio.

Helburuak: errenta eta lana. Hasteko, aztertu dugu hurrengo urteetan nolako herria eta ingurua izango ditugun: dirua nola mugitzen den Soraluzen, jendea, enpresa eta negozioak, lurzoru erabilgarria, inguruko herriak eta etorkizuneko lan-motak.

Eszenatoki horretan, markatu ditugu 2025rako helburu zehatzak: soraluzetarrek kobratzen dutena hobetzea (per capita errenta), langabezia jaistea eta Soraluzen sortzen den ondasuna mantentzea (barne produktu gordina). Helburu horiek lortzeko, diseinatu eta eztabaidatu ditugu hainbat estrategia eta, azkenean, proposatu dugu zentratzea bi estrategiatan.

Estrategiak: gazteak eta herri erakargarria. Helburu nagusia gazteak herrian mantentzea da. Horretarako, gazte horiek identifikatu behar dira, euren ibilbide profesionalak ezagutu, ekintzaileak topatu eta lagundu lanpostu aproposak.

Laguntzeko prest. Zinegotziek interes handiz entzun digute. Laster, udal hauteskunde ostean, udalbatza berria osatuko da eta baldin eta udalbatza horrek ekonomiaren gaia agendaren aurreneko tokietan kokatzen badu, gu prest gaude laguntzeko.

sortzen. Horrekin batera, herria bera erakargarriagoa egin behar da, zerbitzuak eta itxura hobetuz.

Honetaz gain, etorrriko diren aukera eta mehatxuei aurre hartzeko, monitorizatu egin behar da herriaren garapen ekonomikoa.

Bi estrategia horiek sakon landu ditugu: gaitasunak, prozesuak eta baliabideak.

GAZTEAK HERRIAN MANTENTZEA DA SORALUZEN EKONOMIA PIZTEKO PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Arrate Gisasola Izeta

EBETE AHOLKULARITZA ZERBITZUKO KIDEA

KAZETARIA UBANE MADERA

ARGAZKIA: OIER LARREATEGI

Lasarten du egoitza Ebete aholkularitzak, baina Euskal Herri osoari ematen dio zerbitzua. Hurrekin eta gazteekin lan egiten duten hezitzaileei euskararen erabilera sustatzeko tresna praktikoak eskaintzen dizkie. Soraluzen ere badabilta lanean, Arrate Gisasola (Eibar, 1979) da bertako aholkulari.

Soraluzen non jardun duzue lanean? 2016an hasi ginen gurasoekin formazio-saioak egiten.

Irakasleekin ere egin dugu lan, baita Kukumixorekin ere, eta Esperientzia Gelan ere landuko dugu gaia, orain Soraluze Futbol Taldearekin harremanetan ari gara.

Esango zenuke eskolaren esku lagatzen dugula hizkuntzaren gaia? Bai. Euskalgintzatik ere aitorzen da D eredia sartzearekin ia-ia pentsatu genuela dena eginda zegoela, baina ez da horrela, ezta gutxiago ere. Urteko orduen %15a pasatzen du ume batek eskolan. Gainera, %15aren barruan hori baino gutxiago da ume eta gazte bakoitzak berba egiteko duen tartea. Eskolak asko egin du, asko egiten du, baina hobeto egin ahal dira gauzak. Esango nuke ikastetxei begira, instituzioetatik hizkuntzaren trataerari baliabide gutxi ematen zaizkiola.

Ebete aholkularitzak uste du ahozko komunikazioa dela gakoetako bat... Uste dut gaur egun, gertuko ahozko komunikazioak beheraka egin duela, parez pare jarri eta lasai hitz egiten denbora gutxiago ematen dugu, baita umeekin ere. Umeen komunikazio gaitasunak jaitsi egin direla entzun dut behin baino gehiagotan. Eta etxetik komunikazioa lantzea, elkarrekin komunikatzea oinarrizkoa da. Bakoitzak egin dezala bere etxeko hizkuntzan, baina egin dezala. Hori hizkuntzak ikasteko prozesuan, ume batentzat, abiapuntu polita izan daiteke. Oinarri on bat jartzen denean atzetik datozen hizkuntzak errazago ikasten baitira. Txikitan hizkuntzak ikasteko erraztasuna dugula ez da mito bat, baina hori horrela izan dadin

hizkuntza horiek erabiltzeko une eta gune asko behar dira. Une eta gune horietan gertatzen dena da gakoetako bat.

Eta horrelakoak falta dira... Bai. Umeek beraien artean euskara erabiltzeko uneak eta guneak falta dira. Eskolatik kanpoko horri ere arreta eskaini behar diogu: familia, aisialdia, kalea... Hori, izatekotan, helduon helburua da, eta helduok lagundu behar diegu umei bide horretan. Soraluzen aisialdi eskaintza gehiena euskaraz da, ondo. Baina ekintza horietan zein hizkuntzatan ari dira umeak? Horra iritsi behar gara, lekuan lekuko errealitateak ezagutu eta horien baitan estrategiak eta tresnak martxan jarri. Helduon jarrera eta egiteko moduetan sakondu umei laguntzeko. Gakoetako bat da umeak pozik ibiltzen diren esparruak euskaraz bizi ditzatela: ludoteka, futbola, dantza, familiartea... horiek euskararekin lotzea eta identifikatzea funtsezkoa da, ze umeek ikusiko dute lagunarterako eta ondo pasatzeko ere balio diela euskarak, eta hor gurasoek eta helduek asko egin genezake.

Helduen artean zela ikusten da kontua? Hizkuntzaren gaiak ertz eta egiteko asko dituela ulertu behar dugu; izan ere, ekuazio sinpleak egiten ditugu askotan. Adibidez: D erudian ikasten dute, euskara ikasiko dute, ondorioz, egingo dute. Baina ez da horrela gertatzen. Esan bezala, beste faktoreek ere agintzen dute erabileraren ekuazioan: familiak, erreferenteak, testuinguru politikoak, kontsumo-eskaintzak, ... Beraz, eskolatik harago doan gaia dela ulertu behar dugu, norberak dagokion lekutik eragitea komeni dela, eta eragiteko erantzukizuna dugula. Nire ustez, jabetu behar gara hizkuntzaren gaia baloreak transmititzearen zakuan ere sartzen dela. Zergatik ez dugu une batez diskriminazio positibo terminoa hizkuntzaren gaira eramaten? Umei euskara nagusi diren hizkuntzak (gaztelera, frantsesa, ingelesa...) baino gehiago erabiltzen lagundu behar diegu. Eta horrek ez du esan nahi besteei kentzen ari garenik, ekarpena egiteaz ari gara.



Itzuliko balitz

ARGAZKIA: NIKO MENDIA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

“Jendetza bildu da Karakateko bidean (...). Pentsa zenbat zale inguratu diren bide bazterrera eta bakar bat ere ez dugu ikusi txirrindularien aldamenean korrika, txirrindulariei enbarazu eginez ezta nazka emanez; hori bai dela eredugarria, euskal ziklismoa munduari erakusten ari zaion kirol-legea”. Halaxe deskribatu zuten Fermin Aramendi eta Xabier Usabiaga ETBko aurkezleek txirrindulariak Eozoko aldapetan gora pasatu zirenean ikusi zutena. Izan ere, apirilaren 13an, eguraldiua lagun, ehunka txirrinduzale batu ziren Eozoko bide bazterretan eta gogoan hartzeko moduko irudiak laga zituen; batez ere, Aldasorotxo eta Araneta arteko zatian, baita Kirueta osteko tarteko helmugan ere. Horregatik, plazentziatarrok ez genuke poz makala hartuko datorren urtean itzuliko balitz!







EHBildu koalizioaren zerrenda osatu duten hautagaiak.



Iker Aldazabal eta Veronica Galarraga.

Hautagaiak eta asmoak

Alderdi politikoak hasi dira maiatzaren 26ko Udal eta Foru hauteskundeetara begira ekitaldiak antolatzen, euren hautagaiak eta asmoak herritarrei helarazteko helburuarekin

2015eko udal hauteskundeetan lehen indarra izan zen EHBildu eta koalizioak apirilaren 12an aurkeztu zituen bere hautagaiak eta asmoak.

Zortzi emakumez eta sei gizonez osatutako zerrendarekin, Unai Larreategi alkategaiak iragarri zuen “udal politika egiteko jarduna eraldatzera” datozela, herriak “aldaketa” behar duelako. “Soraluzek astinaldia behar du. Gure herriak herritarrak erdigunean ipiniko dituen aldaketa behar du (...). Anbizioa dugu eta badakigu zer nahi dugun, talde bikaina dugu eta lortuko dugu Soraluze kolorez janztea”. Lau urteotan zinegotzi izan den Lorea de Castro zerrendakideak gaineratu

zuen “Soraluzen ere negua bukatu” dela. “Luzea izan da, baina indartuta gatoz, ertzak borobiltzeko prest”. Eta adierazi zuen koalizioaren ibilbidean “parte-hartzea, kolektiboan lan egitea eta herriari hitza ematea” izango dituztela “ardatz”. Bestalde, berritasunetako bat den zerrendako bigarren kideak, Ana Maiztegi ere parte-hartzean jarri zuen azpimarra:

**ASTEON ARGITARATU
DITUZTE HAUTAGAIEN
ZERRENDAK
GIPUZKOAKO BULETIN
OFIZIALEAN**

“Parte-hartzeak taldea dakar, eta taldeak proiektua, eta proiektuak herria eta herriak ilusioa”.

EAJk astelehenean

Lau urteotan alkatetzan izan den EAJk, berriz, apirilaren 29an, astelehenean, aurkeztuko du bere zerrenda. Iker Aldazabal eta gainerako hautagiekin batera, ekitaldian parte hartuko dute Joseba Egibarrek, Gipuzko Buru Batzarreko Lehendakariak eta Eusko Legebiltzarrean alderdiko bozeramale denak eta Maria Eugenia Arrizabalagak, Gipuzkoako Batzar Nagusietan bozeramale denak. Eguraldiaren arabera, Plaza Zaharrean edo Batzokian, 19:30ean.

Edozelan ere, apirilaren 4an, aurrerapen modura, bigarren joango den Veronica Galarraga herrikidea aurkeztu zuen EAJk, alderdiaren asmo nagusien berri emateko etxetz etxe banatu zuen esku-orrian. “Ekonomia indarberritzea, mugikortasunean eta aparkaleku gabezia hobekuntzak egitea, Sologoen zentralaren aldeko apustua egitea, kultura eta kirol azpiegiturak gaurkotzea eta gune berriak sortzea, landa eremuak bultzatzea eta Dolmenen

ibilbidea balioan jartzea eta Soraluze arteko bidegorria bultzatzea". Gainera, eskuorrian iragarri dutenez, alkatetza eskuratuz gero, saihebidetan norabide bikoitza berreskuratuko dute eta aparkaleku gune berriak egokituko dituzte.

PSE-EEk alkategaia

Azkenik, gobernukide izan den alderdi sozialistak, oraingoz, alkategaia bakarrik aurkeztu du: Patricia Borinaga. Hark iragarri zuen, lehentasun izango duela irisgarritasun planean aurreikusitako proiektuak garatzen jarraitzea;

"irisgarritasunean inbertitzea pertsonen bizi-kalitatean inbertitzea delako". Bestalde, gaineratu zuen beharra ere badagoela inbertsioak auzoetara helarazteko. "Badira auzoak denbora luzean hobekuntzarik egin barik daudenak eta jatea bezain beharrezko da horietan inbertsioak egitea";. Gainera, arlo soziala ere bultzatu asmo du, kaleko hezitzaileen programa abiatuz eta familietako esku-hartzerako programa indartuz; eta ezinbesteko jotzen du umeentzako estalitako espazio eta jolastokiak eraberritzea.

Udal hauteskundeetarako hautagaiak

EHBildu

- Unai Larreategi
- Ana Rosa Maiztegi
- Maite Quintanilla
- Roke Akizu
- Jone Alberdi
- Lorea de Castro
- Martin Azkarate
- Hiart Arluziaga
- Iker Uzin
- Cristina Jacas
- Txaro Lete

EAJ-PNV

- Iker Aldazabal
- Veronica Galarraga
- Ramon Gallastegi
- Abel Olaizola
- Mari Carmen Ecenarro
- Xabier Alberdi
- Jose Javier Garmendia
- M^a Angeles Ariznabarreta
- Amaia Bedaio
- Juan Luis Ugarte
- Nagore Zabala

PSE-EE

- Patricia Borinaga
- Ignacio Rubio
- Francisco Jose Romero
- Ainhoa De Castro
- Manuel Morales
- Solded Del Bosque
- Rafael Galvez
- Rosa Del Bosque
- Daniel Ruiz
- Maria Pilar Los Santos
- Eladio Vaquero

PP

- Francisco Javier Sanz
- Enrique Pozas
- Alejandro Maximo
- Marta Laso
- Maria Elvira Rosciano
- Purificacion Gomez-Choco
- Francisco Alonso
- Domingo Angel Herradon
- Mariano Alonso
- Rocío Martinez
- Caridad Bermejo

Ur hornikuntza sarea berritzen

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak ur hornikuntza-sare orokorra eraberritzeko lanak hasi ditu Errekalde kalean eta aurreikusitakoaren arabera, lanek bi aste iraungo dute.

Errekalde kaleko 2 eta 10 zenbakien artean burutuko dituzte lanak, etxeetara ura eroaten duten hornikuntza-sareko hodi zaharrak kenduz eta berriak ezarritik, eta, bide batez, ur zikinak eta euri urak bereiziz. Izan ere, kanalizaio zahar askotan biak batera bideratzen dira eta horrek arazoak sortzen ditu araztegiak, ur emari handiegia bideratzen dutelako. Euri urak behar bezala bideratzeko eskumena eta ardura Udalarena da.

Etxeak botako dituzte Errabalen

Astelehenean eratsiko dituzte Errabal kaleko 14. eta 16. zenbakiko etxeak. , Lehenik, hustu egingo dituzte barrutik eta gero kanpoko egitura botako dute. Aurreikusi dutenaren arabera, lanek pare bat aste iraungo dute. Eraisketa lanok etxejabeek bideratuko dituzte, eta Udalak lizentzia tramitatu besterik ez du egingo.

Eraikina bota orduko, babestutako langileek kudeatuko dituzte bertako hondakinak, izan ere, eraikinetan amiantoa atzeman da eta osasunarendako duen arriskua dela eta, enpresak neurri bereziak ezarriko ditu segurtasuna bermatzeko.



Eskola-bidean parte hartzen diharduen neska-mutiko talde bat

40 neska-mutiko, Eskola-bidean

Maiatzaren 2tik 8ra, erakusketa jarriko dute kiroldegian; eskola-bidea proiektura erabiltzaile gehiago erakartzeko

Otsailaren 25etik martxoaren 20ra bitartean berriro ere hasi zen, helduen laguntzarekin, eskolara oinez eta taldean joateko eskola-bidea egitasmoa.

40 neska-mutiko ari dira ekimenean parte hartzen, eta, asteotako esperientziaren ondoren, baloratu zuten erdiguneko bideetan (bide urdinean eta horian) eta bide berdearen azpiko besoan (Gabolatsetik datorren bidean) umeak "oso ondo datozela euren kabuz eta modu autonomoan"; beraz, horrela dabilta harrezkero.

Partaide kopuruari dagokionez, balorazioa are positiboagoa da, ekimenaren bultzatzaile den Herrixak Heziko kideen ustez: "batez ere, kontuan hartuta azken hilabeteotan udalerrian egon diren aldaketak, obrak eta

Patriako grabazioek eragindako oztupoak".

Gainera, eskolan saio gehiago egin dituzte, batez ere, oinezkoen ardurak lantzeko, eta haurrekin batera ari dira sortzen arategi propioa edo dekalogo, egitasmoa finkatu eta aurrera segi dezan.


Erakusketa, kiroldegian

Bestalde, ikasturtea amaitu aurretik familia gehiago ekimenera erakarri eta berau indartzeko jarduerak egingo dituzte. Adibidez, maiatzaren 2tik 8ra ekimenari buruzko erakusketa jarriko dute kiroldegian, haurrekin sortu diren ekoizpenei buruzkoa.

Gogoratu, eskola-bidean parte hartu nahi duenarendako ateak zabalik daudela. Geltokietara bertaratu eta taldera batzea besterik ez du.

Kamioiak balkoia apurtu zuen

Joan zen astean, kamioi batek balkoia jo eta zintzilik laga zuen Gabolats kalean. 'Patria'-ko kamioi bat zihoan Gabolatsen barrena, baina kale sarreran, Etxepe aldera, zamalanak egiten ziharduen auto bat zegoen aparkatuta, eta hura libratzeko ahaleginean gehiegi baztertu zen beste aldera eta beirazko balkoia apurtu zuen. Udal langileek erretiratu zuten.



Balkoia zintzilik Gabolats kalean.

Hasi dira Calongeko obrak

Astlehenean hasi ziren Calonge kaleko 1 eta 2 eta atarietarako irisgarritasuna hobetzeko lanak. Lehenik, eskailerak kenduko dituzte eta, ondoren, arrapalak eraikiko dituzte, gurgildun ahulkiak eta antzekoak erabiltzeko erraztasun handiagoa izan dadin. Lanek 24.000 euroko kostua izango dute.

Ekonomia Pizteko Plana

Herritar talde batek Soraluzeko Ekonomia Pizteko Plana (SEPP) aurkeztu zion atzo iluntzean udal korporazioari

Soraluzeko Ekonomia Pizteko Plana (SEPP) enpresetan edo ekonomiarekin lotutako irakaskuntza jardueretan eskarmentu luzea duten sei herritarrek osatu dute.

Herritar talde hori oso kezkatuta dago Soraluzeren egoera ekonomikoarekin eta bere ekarpena egin nahi izan du Udalari laguntza eskainiz.

"Gauzak hobetu ezean, edo gauzak beste modu batera egin ezean, gure herriak etorkizun iluna du. Plaentzia da herririk



Plana osatu duten herritarrak.

pobreena Euskal Herriko eskualderik pobreenean".

Hiru gidalerro

Oro har, hiru gidalerro nagusi finkatu dituzte: ekonomia suspertzeko estrategia sortu (norabidea markatu); udalerrian dauden indarrak eta aukerak aprobetxatu (Soraluzek ez dituelako asko) eta plana landu helburuak, baliabideak eta epeak zehaztuta, beste edozein enpresetan moduan.

Uste dute, bada, Soraluzeko ekonomiarekin zerbait egin behar dela, estrategia baten bidez indarrak norabide jakin batean kontzentratuz eta lerrokatuz, eta, plan batekin, gero hari segitzeko.

Laburbilduz, herritar talde horrek uste du Soraluzeko ekonomia pizteko aplikatu beharreko estrategia nagusia dela gazteak herrian mantentzea, 18-40 urteko gazteak, hain zuzen.

Zaborraren arazoa konpondu nahian

Udalak zaborra edukiontzietatik kanpo lagatzen duten herritarrak identifikatzeari ekin dio eta Mankomunitatearekin ere berba egin du.

Azken asteotan, Udalak hainbat neurri abiatu ditu zabor-bilketarekin sortu diren arazoak bideratzeko. Izan ere, azken hilabeteotan ohiko bihurtu da zabor poltsak eta era guztietako materialak edukiontzietatik kanpo ikustea, eta herritar asko agertu dira kexu.

Udalaren neurriak

Otsailaz geroztik, Udalak edukiontzietatik kanpo lagatako zabor-poltsak ikuskatzen

dihardu, aleatorioki, haien jabeak identifikatu, eta, ostean, haiekin hitz egiteko, jakin nahian zein den jokabide horren arrazoia.

Bestetik, Udalak aztergai ditu zabor-bilketaren maiztasuna eta edukiontzien diseinua ere. Hala, maiztasunari dagokionez, dokumentazioa helarazi dio Debabarreneko Mankomunitateari esanez, Erregetxean, bilketa martitzenetan barik, akaso,

komeniko litzatekeela astelehenetan egitea, asteburuetan hondakin asko sortzen delako (gaur egun, martitzenetan eta barikuetan batzen dute). Alkateak azaldu duenez, beste hainbat eskaera ere bideratu dizkiote mankomunitateari: "Planteatu diegu aukerarik badagoen beste edukiontzi bat gehiago ipintzeko, plastikoen kopurua handia delako, eta horrekin batera, Mankomunitateari galdetu diegu ea aurtengo aurrekontuan aurreikusita duten partidarik pedaldun edukiontziak ipintzeko, ze guk administrazio moduan erraztu egin behar ditugu halakoak. Bestalde, edukiontzien ahoaren neurriari buruz ere kexuak daudenez, hori ere helarazi diegu".



Arrainak hilda ibai ertzean, iazko otsailean.

Nork isuri zuen zianuroa?

Otsailean bete da urtebete ibaira isuritako zianuroak ingurugiroan sarraskia eragin zuenetik.

Hala ere, oraindik ez da jakin zer gertatu zen zehazki edo, behintzat, ez da publiko egin.

Bergarako enpresa bat omen

Uraren Euskal Agentziak *Plaentxia.eusi* eta Soralezuko Udalarari adierazi dionez, iazko irailean agentziak "zehapen espediente bat" ireki zuen "Bergarako enpresa baten kontra" eta, ostean, "Ertzantzak epaitegietara eroan zuen enpresa". Agentziaren esanetan, Ertzantzari dagokio hortik aurrerako pausoen berri ematea.

Plaentxia.eusek Bergarako Ertzantzari eskatu dio prozeduraren gaineko informazioa, baina, oraingoz, Ertzantzak, prozedura hori zabalik dagoela baieztatzeaz gain, ez du eman berorren gaineko informazio gehiagorik,

ez eta ustez isuriaren arduraz izan zuen enpresaren izenik ere. Hala ere, adierazi dute datozen egunetan informazioa helaraziko dutela.

Ur zikinak ibaira

Oraindik ere badira ur zikinak zuzenean ibaira isurtzen direnak, esaterako: Sagar Errekako industrialdekoak, putzu septikorik ez duten baserrietakoak, Kalebarreneko karkaba parean dagoen hodikoak... Alkateak jakinarazi duenez, URAk agentziak Udalarari adierazi dio "epe motzean" Sagar Errekako ur zikinak araztegi bideratuko dituztela. Bestalde, Udalak jarraituko du Ur Kontsultazioari eskatzen Kalebarreneko karkaban ibaira isurtzen diren ur zikinak araztegi bidera daitezela.

Azken ekarpenak ordenantzari

Maiatzaren 2an, eguena, egingo da landabideen ordenantzari ekarpenak egiteko azken bilera udaletxean. Ondoren, Udalak maiatzeko udalbatzarrean onartu nahi du Udalaren jabetzako landabideen erabilera arautuko duen ordenantza berria. Alkateak adierazi duenez, Udalarari dagokio bere ardurapekoak diren bideak zaintzea eta horretarako beharrezkoa da arau batzuk izatea, alde bakoitzak bere ardurak bete ditzan. Bilera arratsaldeko 19:00etan hasiko da batzar aretoan eta bertara gonbidatuta daude baserritarrak, basogintza sektoreko eragileak eta interesa duen edonor.

Txizak estropeatu du igogailua

Santa Ana kaleko igogailua estropeatuta dago azken egunotan, zirkuitu elektronikoa hondatu zaiolako. Igogailuaren mantentze-lanez arduratzen den enpresak jakinarazi duenez, txizak hondatu du zirkuitu elektronikoa. Konponketalaneak 1.129,39 euroko kostua izango dute eta Orona enpresak gauzatuko ditu. Udalak uste du horrelako jokoerak "onartezinak" direla eta laguntza eskatu die herritarrei egileak identifikatzeko. Arazoa aspalditik dator, eta Udalak hainbat ohartarazpen egin arren, bere horretan dirau.

Beste solairu bat zazpi hilabete barru

Diputazioak eta Udalak kiroldegian beste solairu bat egiteko behar den finantzazioaren erdia hitzartu zuten joan den astean

Bukatzeaz da Arane kiroldegiari solairu bat gehitzeko obretarako proposamenak aurkezteko epea. 20 eguneko epea eman zuen Udalak eta betetzear da. Behin epea bukatuta, jasotako proposamenak aztertu eta obra adjudikatuko dute, sei hilabeteko exekuzio epea ezarrita.

Espazioa "txiki"

Izan ere, "behar-beharrezko" ikusten du Udal Gobernuak obra hori ahalik eta lasterren abiatzea; Iker Aldazabal alkateak dioenez "kiroldegiak dituen 950 bazkide baino gehiagorendako espazioa "txiki" geratu delako eta dagoenak ez duelako "gehiagorako ematen".

Horri buelta emateko, Udal kiroldegiari beste solairu bat gehituko diote, terraza txikiaren gaineko aldean. 450 metro



Diputatuak eta udal ordezkariak.

karratu irabazita, bertan egokituko dituzte takilladun pasilloa, gimnasioa (ibaira begira), spinning gela (U aldera begira) eta erabilera anitzeko gela. Komunak ere ipiniko dituzte. "Guztia ondo isolatuta egongo da, eta argi asko izango dute areto berriek" (...)

Gainera, solairu hori kirol azpiegiturarako erabiltzeari esker, kiroldegiaren barruan libre geratuko den espazioa kultura jarduerarako bideratu ahalko da".

Obrak 568.000 euroko aurrekontua du, eta joan den astean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak (Denis Itxaso diputatuak) eta Soraluzeko Udal Gobernuak (Iker Aldazabal alkateak eta Patricia Borinaga alkate-ordeak) 250.000 euroko laguntza.

Oposizioaren kritikak

Kiroldegian beste solairu bat eraikitzea "herriarendako aukera" moduan ikusten dutelako abstenitu zen EHBildu obrari bide emango dion bozketan. Baina Unai Larreategi bozeramaleak esan zuen "hutsunea" sentitu dutela espazio berriak zertarako erabiliko diren erabakitzen parte hartu ez izanagatik. Gainera, enpresen proposamenak jasotzeko emandako epea motzegia iruditu zitzaizkien, adjudikatuko dutena "600.000 euroko proiektua" izanda.

Ikasturtea agurtzeko, sukaldaritza kontuak langai Itzaropenan.

Alzheimerri (dementziei) buruzko hitzaldia eginda, ekainean agurtuko du aurtengo ikasturtea Esperientzia Gelak.

Sukaldaritza, zaporea, historia izenburua duen ikastaroa izango da aurtengo azkena eta maiatzaren 29an, ekainaren 5ean eta ekainaren 12an egingo dituzte eskolan. "Bertan sukaldian arituko gara, eta

prestatzen ditugun jakie buruzko historia kontatuko dugu". Hala azaldu digu Juan Fernandezek, Alkarri elkarteak kideak.

Ikastaro horretan parte hartzea libre da, baina Esperientzia Gelan matrikulatuta egotea ezinbestekoa da, "bestela ez dakigu zenbat osagai erosi

beharko ditugun". Eskolak 18:30etik 20:00ak bitartean izango dira.

Irailetik aurrera

Oporren ondoren, baina, bueltan izango da Esperientzia Gela. Hain justu, Internet eta sare sozialei buruzko formazioaren bigarren zatia, datorren ikasturterako atzeratu dute, denbora faltagatik. Eta gauza bera gertatu da Euskara proiektuarekin. Biak datorren irailetik aurrera egingo dituzte.

Ezkatuko mezua

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

Maialen Lujanbiok irakurri zuen Gasteizen 21. Korrikaren mezua, egurrezko lekukoaren barruan euskararen herrian barrena ibili dena. Hona hemen mezuaren zati bat: "Euskara gaur egun arte, ta Gasteizaino KORRIKA, ekarri dugunoi, biba, gora, eutsi, goza, Klika. KLIKA! Hizkuntza ez da edukitzekoa. Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika. Beraz, KLIKA! Instalatu eta elika! Euskara, ez da euskararen gauzetarako aplikazioa. Euskarak behar du herri honen sistema eragilean. Memoria handiko lur honen hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa. (...) Mundu bat euskarak, mende erdia euskara batuak, eta ehunka, milaka bizitza eta gogo EUSKARAK BATUAK".





GUTUNAK

Motorrak babestutako gunean

M. V.

Debekatua duten arren, motordunek jarraitzen dute pasatzen mendigaineko edozein gunetatik. Gainera, orain bi aste, ibilgailu motordunekin ibiltzea debekatzen duen seinalea aurkitu zuen bere lekutik aterata eta bide erdira botata.



Usaina eta zikinkeria

PILI VALERO

Argazki honek erakusten du Atxuri kaleko 13. atariko bizilagunek egunero jasan behar izaten dugun egoera. Gure ama bertan bizi da eta usainez gain, zikinkeria ugari jasan behar izaten dugu egunero.

Bestalde, poltsa horien edukiarri begiratuta, esango nuke berziklatzearen kontua urrun samar gelditzen dela. Hori dela eta, mezu honen bitartez, egoera hau salatu nahi dugu eta gure kexua helarazi Udalari, hartu beharreko neurriak har ditzan.



GUTUNAK: Karaktreak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Zabor-bilketaren arazoa

Azkenaldian, ohikoa bihurtu da herrian zabor pilak ikustea edukiontzietatik kanpo. Udalak neurriak abiatu ditu, baina, oraingoz, arazoak bere horretan dirau.



JUAN MARI OREGI

"Txurrukarako bidegurutzea era guztietako zaborrez gainezka egoten da egunero. Burdinezko pieza industrialak, telebistak, ordenagailuak, bonbilak... Bihurtu da zaborrak botatzeko erreklamo bat. Nire ustez kontenedore horiek soberan daude".



ARKAITZ ARANA

"Jendeak zergaitik botatzen du zaborra kanpoan? Nire ustez txartela erabili beharra eragozpen bat da. Eta herri honetan noiz berba egin da ba zaborren gaiaz? Nire ustez, jendea erakutsi egin behar zaio, trabak kendu eta ondo egiten duena saritu".

ZIR(R)IKA

P.G. ZABORRAK

6. kontenedorea



Birziklagarriak?

PUNTUA



DAVID LINDEMANN

Kañoi-fabrika

Pil-pileanen otsaileko aleak jakinarazi zigunez, kañoi-fabrika handiaren jabeak udalaren esku lagako du Plaentxiko eraikin enblematikoaren zati bat. Oso berri ona, zalantzarik gabe: eraikina bota eta goi-mailako etxebizitzak egin beharrean, gune publikoa izango da, eta gune hori pasealeku edo parke gisara erabiltzea da mahai gainean dagoen proposamena.

Orain, iruditzen zait lantegi-eraikin horrek sekulako garrantzia duela herriaren historian eta herriko bilduma arkitektonikoan. Nolabait ere, herriaren nortasun-agiria du, eta haren desagertzea sortuko lukeen hutsunea betetzeko proposamenak herriaren etorkizunerako planteamenduaren erakusle izango dira.

Plaentxiko ikurra desagarrarazi baino, bete dezagun guk nahi dugun edukiz, ideien leihaketa deituta. Har ditzagun aintzat garai industrialaren ikur diren eraikinetan hegoaldeko beste herri batzuek egin dutena: Firestone, Astra, Bonberenea, Eibarko "Biharrian", Tabakalera... Eraikin guzti horien barruan, ekimen berriak kimatu dira, historia kontatzeko duten horma zaharrak ordeztu gabe, bakoitza bere eran arrakastatsua, eta, hala iruditzen zait, gauzaezinak liratekeela horma berrien artean.



NEKANE JAUREGI

"Ohiturak aldatzea ez da erraza eta baliabideak behar dira. Beste bailara batzuetan pedaldun edukiontziak daude, neurri ezberdinetako zuloak dituztenak... Hemen zergatik ez? Nire ustez irtenbide teknikoak bilatzearekin batera, jendea sentsibilizatu behar da".



PALOMA ALVAREZ

"Oviedon hondakin organikoak atariz atari batzen hasi dira, egunero. Arratsaldetan kamioi bat pasatzen da kuboak jartzen eta gauean jasotzen. Gainerako hondakinak ere antzera, sailkatuta atariz atari. Horregatik jaso zuen Europako hiririk garbienaren saria".



Soraluce XXL ate irekien jardunaldia, 2018an.

Berritu eta hazi, jatorria ardatz hartuta

Etorkizunak jatorri bat du. Izenburu horixe duen liburua aurkeztu zuten Soraluce kooperatibako ordezkariak martxoaren 21ean Herriko Antzokian. Jatorria bihotzean eta gogoan dutelako, liburu baten bitartez herritarrei helarazi nahi izan zioten zer ekarri duen orain dela 57 urte 52 plazentziatarrek erein zuten haziak, ausardiak eta mugak gaindituz, eta beti jatorria ardatz hartuta.

Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Soraluce Coop., Egoitz Unamuno eta Ubane Madera**

O sasuntsu dago Soraluze kooperatiba. Horren erakusle dira azken jarduerak: Mekolaldeko planta egokitzeko 9 milioi euroko inbertsioa egin dute eta *Portal Factory* izenarekin planta horretan makina handiak fabrikatu ahal izango dituzte. Horrela, puntako teknologiarekin erantzun ahal dute gero eta handiago den eskaerari.

Gainera, hitzarmena sinatu berri dute Bergarako Udalarekin, hala azaldu du kooperatibako presidente den Lino Alberdik: “Planta Bi deitzen duguna herri barruan dago, eta hura Lideli saldu nahiko genioke, Osintxun planta berri handiago eraikitzeke, gure gaur egungo produktuari hobeto egokitzen zaiona. Espero dugu hori 2022an jartzea martxan, 60. urteurrena ospatzeko. Gero berrantolatuta eta merkatuaren arabera, ahal bada, hazten segituko dugu. Poliki-poliki, hazten goaz. 2015ean 215 langile ginen, orain 230 bat. (...) Guztira ditugu 320 lagun lanean, 230 Osintxu-Bergaran, beste 80 bat Alemanian eta beste 10 bat Italian. Produktzioaren %95a hemen dugu. Errumanian baino ez dugu parte txiki bat deslokalizatuta. Txinan-eta ez dugu produkzioerik, ordezkartza (talde-mailan) eta bezeroak baino ez. Ez dugu nahi izan. Eta hornitzaileak ere, gehienak, ingurukoak dira (...) Gure lantegietakoak baino langile gehiago dira baliatzen ditugun zeharkako langileak, gehienak bertakoak, ez gara joaten Taiwanera-eta langile bila; portzentaia oso-oso txikia da kanpokoak”.

Bertan eta bertakoekin

Bertakoekin ez ezik, bertan lan egiten du kooperatibak, sorterrarekiko atxikimenduari eutsi nahian. Rafael Idigoras gerentea soraluzetarra da. Baita Lino Alberdi lehendakaria ere, eta horrez gain: “30 plazentziatar dira bazkide; kalitateko arduraduna Soraluzekoa da, baliabide arduradunaren ama Izarre baserrikoa (barrez)... Beste 50 dira bergararrak eta asko ingurukoak: eibartarrak, durangarrak, elgoibartarrak, bilbotarrak... Beraz, ez dakidana da gu ez gaudenean (soraluzetarrak gara %13-%14) zer gertatuko den. Nahiko genuke atxikimendu horri eustea. Horregatik egiten ditugu liburu aurkezpenak, batzarrak... Soraluzen. Jaioterriarekin dugun harremana mantentzen dugu borondatez, ez behar dugulako. Garrantzitsua da gogoratzea nondik gatozen, gure nortasuna da. Etorkizunean baletoz zuzendaritzara beste leku batzuetakoak, akaso ez da horren erraza izango sentimendu hori mantentzea. Orain, ate irekietara, adibidez, jende asko etortzen da Plazentziatik, erretiratu mordoa tartean...”

Munduko onenen artean

Txikia izanik sortu zen Soraluze, baina maila gorenera heldu dira: “Mundu osoan aritu naiz lanean 28 urtean: European, Txinan, Japonian, Australian, Errusian, Ukrainian, Australian, Errusian, Ameriketako Estatu Batuetan, Brasilen, Argentinan, Mexikon, Israelen, Arabiako Emirerri Batuetan, Malaysian, Singapurren... Fresaketa-mailan mundu osoan da ezaguna Soraluze (...) Onenak garela esatea ez zait gustatzen, baina onenariokak garela bai. Egongo gara bizpahiru enpresa munduan punta-puntakoak, eta gu gara bat. Adibidez, FPT eta Pama dira lehiakide garrantzitsuenak munduan, italiarrak biak. Eta Espainian, Correa eta Zayer”.

"ATZERRIAN EZ DUGU PRODUKZIOERIK, EZ DUGU NAHI IZAN, ETA HORNITZAILEAK ERE INGURUKOAK DIRA"

"ONENAK GARELA ESATEA EZ ZAIT GUSTATZEN, BAINA ONENETAKOAK GARELA, BAI"

Ausardia handiarekin lortu dute dauden lekura heltzea, eta ondo lan eginda: "Hori da gure ikurretako bat: kalitatea eta prezisioa.", azpimarratu du lehendakariak. Eta, jakina, gaur egungo gizartera egokituta. Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza dituzte gidari. "Nahi badugu onenen artean mantendu, hori da aurrera egiteko bide bakarra, munduan punta-puntako teknologia garatzea, Euskal Herrian dauzkagun gaitasunak munduari erakusteko. (...). Departamentu hori hazi egin da asko, 2012an zortzi bat lagun ginen, eta gaur egun gara 15. Profilak ere asko aldatu dira: informatikoak, Big Data adituak, 4.0... sartzen ari dira".

Soralucek jaso dituen sari mota eta kopuruari begiratuta, bide onetik doazela dirudi, gainera. Alberdik sari bat nabarmendu du, makina-erreminten sektoreko Oscarra. 2015ean eskuratu zuten, eta aurten ere nominatuta: "Best Of Industry Award". Hori lortzea da egindako lanari aitortza. DAS teknologia aurkeztu genuen (bibrazioen kontrako sistema), ahalegin handiarekin lortutako garapen teknologikoa da. Aurten ere aurkeztu gara, VSET (fotogrametiazko neurketak) teknologiarekin, eta nominatuta gaude. VSET-ek tamaina handiko piezak argazki kamera batekin neurtzen ditu, horrela, lortzen dugu makinan denbora oso gutxian piezak alineatzea".

Aurrera begira segitzen dute Soraluken. *Etorkizunak jatorri bat du* liburuaren amaieran dioten moduan, "Erronka berriak ditugu, eta horiei aurre egiteko konpromisoa eta ilusioa ere baditugu". Orain 57 urte moduan, bada, ausartak izaten eta mugak gainditzen segitzen dute kooperatibakoek.

"Hemen lagako dugu eredia eta enpresa"

LINO ALBERDI SORALUCE KOOPERATIBAKO PRESIDENTEA

Lino Alberdik (Soraluze, 1965) bigarren ekitaldia du Soraluce kooperatibako presidente gisa.

Bazkidea eta Soraluceko presidentea zara, enpresari atxikimendu berezia diozu?

Bai. Bazkide fundatzaileak soraluzetarrak ziren, eta harrotasun handia sortzen dit euren hasitako lanari jarraipena ematen jarraitzen dugula ikusteak. Hau nire etxea bezala da. 1990ean hasi nintzen ni, eta bi planta bakarrik genituen: Osintxuko hau, eta Bergarano beste bat. Harrezkero, Bergarako Txurtxil geureganatu genuen, fusioa egin genuen, eta orain sortu dugu bosgarren planta bat Mekolalden, Alemanian ere



badugu salmentetarako beste planta bat eta ordezkaritza bat Italian. Hazkunde horrek harro sentiarazten nau, horren parte izan naizelako. Gainera hemen lagako dugu eredia hurrengoendako, eta enpresa ere hemen geratuko da.

Atxikimendu horrek badu zerikusirik kooperatibista izatearekin?

Noski. Hemen onartu dira, adibidez, soldata jaitsierak bazkideak kontsolidatu ahal izateko. Hori kooperatiba ez den enpresa batean ez da egiten. Hori da benetako kooperatibista baten konpromisoa: bertako jendearekin lan egin nahi izatea, eta jendeak balio duela ikustean, pertsonalki esfortzua eta sakrifizioa egitea beste batzuek jarraitu ahal izateko. Hori Soraluken egin egin dugu. **Soraluzetar bati zer esango zenioke Soraluçeri buruz?** Etortzeko eta ikusteko soraluzetarrak zer egiteko kapaz garen. Soraluzetarrok badugu gaitasuna. Ate irekietara etorri diren erretiratuek ere harro-harro ikusi dute orain arte egin duguna.

"Iritsiko gara iritsi nahi dugun lekuraino"

Nire izena Rafa Idigoras da. Soraluzean jaio nintzen 1967. urtean eta Eibarren bizi naiz 1994an ezkondu nintzenetik.

1991n ingeniarietza ikasketak amaitu ondoren, SORALUCEn hasi nintzen eta harrezkero hemen jarraitzen dut.

Erabaki estrategikoak

Garrantzitsua da azpimarratzea Soraluzean garapen tekniko eta komertzial garrantzitsua duela; 1962an sortu zenetik, hainbat produktu fabrikatuz, hala nola, zulatzeko makinak, makina bereziak, mandrinatzeko makinak eta mekanizazio zentroak. Hala ere, gaur egungo arrakasta dator bi erabaki estrategikoren arteko konbinaziotatik: Alemaniako merkatuarekiko apustua egitearen eta fresatzeko makina Soraluzean produktu bereizgarri bihurtzearen arteko konbinaziotik.

Apustu hori 90eko hamarkadaren hasieran egin zen eta Soraluze lehiakide bihurtu zen fresatzeko sektorean. Orduan, sei fabrikatzaile nagusi zeuden mundu mailan eta, gaur egun, guztiak gaintu ditugu fakturazio, produktu-gama eta teknologian.

Hala ere, bidea ez da erraza izan, eta krisi ekonomikoek ere kaltetu gaituzte. Krisi horien artean, 2008., 2009. eta 2010. urteetako sektore ekonomiko guztietan izan zuten eragin nabarmena, batez ere, makina-erreminta sektorean.

Soralucek, hala ere, ausardiaz aurre egin dio egoerari. Beste



Rafael Idigoras gerentea.

lehiakide batzuek tamaina eta gastua murrizteko bidea hartu dute, baina guk, azken urteetan, ekin diogu produktu-gama zabaltzeari eta teknologia aurreratua eta bereizitua garatzeari.

Hori guztia gauzatzeko, 4 milioi euroko gastua egin behar izan dugu urtero, produktu eta teknologiaren garapenean eta marketingaren eta promozioaren sustapenean.

Gainera, azken hamar urteetan, 25 milioi euroko inbertsioak egin ditugu Bergaran eta Alemanian, gure instalazioak beste 10.000 m² handitzeko.

Azpimarratzekoa da egindako gastuak eta inbertsioak egin direla, merkatua egoera zail batean zegoela eta bazkide guztiek egin behar izan dituztela sakrifizioak. Beraz, bazkide berriek kooperatibaren

"AUSARTAK IZATEN
JARRAITU BEHAR DUGU
ETA MUGAK GAINDITU
EGUNEROKO LANEAN"

garapenean duten konpromisoaren adibide ezin hobea da 2017an Mekolaldeko lantegi berriaren 9 milioi euroko inbertsioa bazkideen% 90aren botoekin onartu izana.

2012. urtean Soraluze bere 50. urteurrena ospatu zuen eta Ospakizun hartako mezua ondorengo izan zen: "Amets bat gauzatu izanaren poza". Gure aurrekoen lana aitortu eta eskertu ahal izateko baina, konpromiso bat ere hartu genuen gaur egungo bazkideen artean, eta konpromiso hori hurrengo hitzekin azaldu: "Iritsiko gara iritsi nahi dugun lekuraino: gure etorkizuna geure erantzukizuna da". Horregaitik, ausartak izaten jarraitu behar dugu eta mugak gaintu gure eguneroko lanean.

Erronka berriak ditugu esku artean, eta horiei aurre egiteko konpromisoa eta ilusioa ere bai. Soraluze berritzen jarraituko du, aurre egiteko ekoizpena eraldatzen ari diren bost eronkei: automatizazioa, robotika, digitalizazioa, multiprozesuak eta fabrikazio aditiboa.

"Soraluceko lanposturik txarrena ere ona da"

Jose Angel Basauri (Soraluze, 1954) 1968an sartu zen kooperatiban, 2005era arte. 110.bazkide zenbakiduna, zuzendari tekniko izatera ailegatu zen. Eta harro dago lantoki izan duen kooperatibaz: "Barru-barrutik Soraluceko kamiseta daramagu" dio oraindik orain.

Harro dago iraganaz: Soraluce 1963an sortu eta handik urte gutxitara 8-10 gizon Italiara joan ziren ikastera (1965-66an). Pentsaizu ze ikuspegi, gaur egun horren entzutetsua den nazioartekotasuna... urte haietan jada, Italiara begira zeuden Soralucen. Italia zen liderra. Teknologiaren aldetik



Jose Angel Basauri.

aurrera begira ibiltze hori Soraluceren bereizgarria izan da. Listoia beti goian ipini dugu teknologiaren aldetik, teknologia dominatzea nahi. Eta ausardia handia izan da. (...) Hasieretan ere horrela izan zen".

"Tentagarria da"

Jose Angel Basauri harro dago orainaz ere: "Herritarrei esango nieke ate irekietara joan daitezela eta ikusi dezatela zer dagoen, derrigor izan behar du-eta tentagarri. (...) Lanpostu onak daude han. Soraluceko lanposturik txarrena ere ona da. Han ez badugu problema pertsonalen bat, aldamenekoarekin edo jefearrekin, laneko ingurua oso atsegina da: garbitasuna, lan arinak, punta-puntako teknologia... Soraluce tentagarria da (...) hori bai formazio bako jendeak Soralucen ez dauka lekurik. Gauzak ondo egitea zaila da eta jakintza behar da".

"Jarrai dezatela plazentziatarrek, primeran funtzionatu dute-eta"

Jaime Azcona (Desojo, 1934) Talleres Soraluceren bazkide sortzaileetako bat izan zen. SAPAn ziharduen, kaliatearen kontrol arduradun moduan, baina Jose Luis Eguren Eibar Txiki ausartaren proposamenari baietz esateko zalantzarik ez zuen izan, eta hark konbentzituta SAPA laga eta sartu zen Talleres Soraluce sortzeko abentura berrian, 30 urterekin.

Aitzurak eta pikatxoa hartuta, lantegiarendako lurra lautzen jardun zuenetako bat izan zen: "Lanetik irten, eta Osintxura joaten ginen lanera, zementua botatzera, Ingalaterratik ekarritako makinendako".



Jaime Azcona.

1992an erretiratu zen Azcona, baina horrenbeste urteren ondoren ere, urtero joaten da Soraluceren ate irekietara, eta "harro", baina "benetan harro" sentitzen da ikusten duenez.

"Primeran funtzionatu"

"Emaizta ikustea besterik ez dago. Txapela kentzeko modukoa da, harrituta geratzen zara bertatik bertara ikusten duzunean; azken ate irekietan izan nintzen eta egundoko harrotasuna sentitu nuen. Benetan. Daraman erritmoa ere harrigarria da: lantegiak, enpresak, makinak... beharrezkoak diren inbertsioak egin izan ditu eta egiten ditu. Hori bai, ausardia behar da egin dutena egiteko. Gure sasoiaren ere horrela abiatu zen, eta oraingoei esango nieke jarraitu dezatela plazentziatarrek zuzendari izaten, orain arte primeran funtzionatu dute-eta".

SORALUZeko HAURRESKOLA



IZEN - EMATEA: Maiatzak 2tik - 10era
(2018 - 2019an jaiotakoak)

MUGIMENDU ASKEA



ARRETA PERTSONALIZATUA



JOLASA eta MANIPULAZIOA



- KUOTAK errenta aitortpenaren arabera
- Orduetgia
7:30 - 17:00
- Helbidea
FRONTOI KALEA 1-BEHEA
- Telefonoa
943751332





Preferente taldeko jokalariek partiduan.

Mailari eustea lortu dute

Oier Ariznabarreta (Soraluze, 1991) kapitainak dionenez, Soraren Preferente mailako taldeak bete du aurtengo helburua: mailari eustea.

Denboraldia amaitzeko bi jardunaldi falta direnean, Sorako nagusien taldea sailkapeneko 7. postuan dago –16 talde dituen multzoan-. Gainera, oraindik ere badu aukera sailkapenean aurrera egiteko; izan ere, puntu bakarrera ditu seigarren eta bosgarren sailkatuak – *Aretxabaleta* eta *Zumaiako*-.

Denboraldi “gorabeheratsua”

Ariznabarretaren iritziz, denboraldia “gorabeheratsua” izan da. “Gaizki hasi ginen, partidurik irabazi ezinda. Lehenengo bueltaren amaiera aldera, azkenenak gindoazen. Gero, hamabi partidu egin genituen galdu barik eta laugarren jarri ginen. Azkenean, lortu dugu maila mantentzea, baina ez gora ez behera gelditu gara sailkapenaren erdialdean”.

Hala ere, helburua bete dute. “Helburua zen Aste Santura trankil heltzea eta hori lortu dugu, nahiz eta azkenengo partidua 4-0 galdu genuen Aloñamendiko oñatiarren kontra...”.

Bi jardunaldi bakarrik falta dira denboraldia amaitzeko eta Oierrek dioenez, amaiera “lasaia” izango da, dagoeneko ez baitute ezer jokoan.

Pitxitxia “Txato”

Klubaren ohitura da, urtero, denboraldia amaitu ostean, goleatzaile onenaren saria banatzea eta, dirudienez, aurten pitxitxia Jon Agirregomezkorta “Txato” izango da. Oraingo, 12 golekin, bera da taldean golik gehien sartu dituen. Atzetik du Mikel Oregi “Zabale” lau gol gutxiagorekin.

Urban Trailerako izen-ematea

Maiatzaren 19an egingo dira aurtengo Urban Trail eta Andaina herrikoia. Lehenengoa 09:30ean abiatuko da 11,5 kilometroko ibilbidea egiteko eta, bigarrena, berri, 11:00etan, 5,8 kilometroko ibilbidea egiteko. Izen-ematea zabalik dago kirolprobak.com webgunean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ibilbide biak berriro dituzte.



Kartel iragarlea. PABLO GALARRAGA.

Futbol 7 txapelketa

Maiatzetik uztaiera bitartean jokatuko da aurtengo Futbol 7ko txapelketa. Izena emateko epea apirilaren 26ra arte izan da zabalik. Gehienez 16 taldek hartu ahal izango dute parte, taldeko 125 euro ordainduta. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 943 752 466 zenbakira edo idatzi kirola@soraluze.eus helbidera.

ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure genakoz hartu klinika, punta puntako teknologietan lan egiten dugua. Cad-Cam sistema berrituzkoa erabiltzen dugua.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astulabanduetatik ostiratera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Jasotzen plazaren, bertatik bertara



Batzoki

egonkoko zozkina
asturruaruzan
karta eta zuzanak

opartariekok eta
herbergietan
enikargu bereziak

Basilla eta
lagun antzeko
bostanak

Erretabak: 943 75 20 34



Etxabe Harategia

- Etxara eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soralarzoko baserrietako produktuek
- Etxeko txipak eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



ARRANO
taberna

Etami eta gaztuak
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09

MABEL
ILE/PAINDEGIA

- Rearentzako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Ilu-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura erdiraunkorra
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 09



BOLIA
TABERNA

Piribok, arinak,
kordinak
Gazte-giroko festa



Fanny Mertzeria

Arropak konpontzen ditugu
Santa Ana 22, behea - 688 81 53 92



Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Julen Alamo
Mediku-koordinatzailea
K.Z. 48.000.504

Karla Guñe
Odontologoa
K.Z. 48.001.548

Erretab 1 - Tel.: 943 75 16 13

lekuz gabeak arretara,
odontologia orokorra,
primitu tentak eta mugimena,
odontopediatria, ortodontia,
eguziak, estetika...



KLB6

Kalekarrera 6
943 67 76 28

Makina eta makinen
modulagailua

Facebook, Twitter, YouTube

Alpa Juarra
EMLEND

ISOLID
PUNIKO

VERO MODA

MATRÓN MOTER
S.L. (CALLE SAN PEDRO, 10)



AURREZTU ENERGIA

Beratu ura eguzki izpiekin
edo airearekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 - sanandresiturgintza@gmail.com



SUMA
basolanak

Mug. 635 71 34 08

baso garbiketarak eta entresakak
zortzi lagunekoko taldea zure zerbitzura



Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zitapenak - Administrazioa lanak
Tratamendu burokratikoak - Lan-urteko aholkularitza
Enpresen konstituzio/leohizunak - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. ed. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

antena
dekorazioak
industriala

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30



Txoko

Eguneko menua,
plateak, konbinatuak,
herbergietako,
ogitariekak,
retziak,
pizza, gogorria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



Euskalzaletasunaren alde:



"Tailer literarioa sortu nahi dut"

ANGEL MARIO FERNANDEZ IDAZLEA

Che Aitona liburuaren hirugarren edizioa argitaratu behar du Angel Mario Fernandez idazleak. "Oso ondo saltzen dabil. Gehien saldu dudana liburua da".

Non dago salgai?

Soraluzeko liburu-dendetan, Eibarren, Arrasaten lantoki dudana Meca gasolindegian, eta epe laburrean, Elena Perezi esker, Elkarren 15 liburu-dendetan ere bai. Garrantzitsua da oso argitaletxe garrantzitsuenek gure liburua saltzea.

Horrek badakar beste libururen bat idazteko konpromisorik?

Ez, baina horrenbeste liburu ditut argitaratu barik... Are gehiago, aurten beste bat argitaratu behar nuen, baina Che Aitonari denbora gehiago eman nahi izan diot.

Durangoko azokara eramango dugu, eta inguruko liburu-azoketan ere parte hartuko dut.

Gehiago argitaratzeko asmoa baduzu, hortaz, noiz? Zeri buruz?

Urtea amaitu aurretik. Antzerkian zein nobeletan sarri landu dut desagertutako pertsonen buruzko gaia. Argentinako diktaduran 30.000 lagun daude desagertuta, tartean nire lagun onenatariko bat. Neuk ere Brasilera alde egin

"EZUSTEA IZAN DA CHE AITONAREN ARRAKASTA, MUNDU HORRETAN DAGOEN LEHIA DELA-ETA"



Angel Mario Fernandez idazlea.

behar izan nuen... horri buruz izango da. Bestalde, nahi dut azpimarratu Soraluzen badela inizatiba literariodun jendea. Calipso kafe-literario taldea sortu genuen orain lau urte (Cafe Literario Placencia-Soraluze).


Orain, urrunagoko jendea gehitu zaio, (Aretxabaleta, Arrasate, Lanzarote...) eta asmoa dugu udako oporren aurretik denon kontakizun ez osatutako lehen liburua argitaratzeko. Dudan antzinako nahietako bat da gazteei eta umei zuzendutako doako tailer literarioa sortzea, euskaraz eta gaztelaniaz. Beraz, uda ostean hori mugitzen hasteko asmoa dugu.

Uste duzu interesa egongo dela umeengan eta gazteengan?

Bai. Apur bat bultzatu egin behar da. Ideia da hazia landatzea etorkizunean adierazpen literarioa izan dezan Soraluzek, antzina bezala. Begira, Errepublikara (1932) Euskal Herrian zeuden 13 antzerki-talde eta garrantzitsuenetako bat Soraluzekoa zen.

Tripafesta berezia, bertsolariekin

Maiatzaren 3an, tripafesta berezia egingo dute Gaztetxean. Ohiko jatordu beganoaren ostean, bertso-saioa egingo dute lau bertsolariekin: Ane Labaka, Maider Arregi, Iñigo Izagirre eta Eneko Beretxinagarekin. Gaiak Ibon Leibar bergararrak jarriko ditu. Afaritarako txartelak salgai daude Arranoa, Bolia, Iratxo eta Gaztelupen.



Saioan kantatuko duten bertsolariak.

Trikiti eguna ekainaren 1ean

Debagoieneko trikiti eguna Soraluzen egingo da aurten, ekainaren 1ean. Egun osoko jaia izango da eta musika eskoletako soinu eta pandero ikaslez beteko da herria. Debagoieneko trikiti ikasleekin batera, Baxenafarroako Amikuze bailarako ikasleak ere etorriko dira. Guztira, 350 ikasle baino gehiago espero dira.

2019-20 Batxilergorako aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra

BATXILERGOA (BH)

Gizarte Zientziak
Humanitateak

Osasun Zientziak
Zientziak eta Teknika

Artistiko Musikala

Giza eta
Gizarte
Zientziak

Zientziak

Artea



**ATE IREKIAK: MAIATZAREN 2AN, 18:30EAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**

943 899 316
013431aa@hezkuntza.net



Ana Marik denda itxi du

198AN ZABALDU ZUEN DENDA, AURRETIK MELTXORRENEKO TABERNA ZEN LEKUAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIA: ANA MARI ARIZAGA ETA U.M.

Ana Mari Arizaga Leturiondok (Soraluze, 1953) martxoaren 29an itxi zuen 35 urtez izan duen Ana oinetako-denda, erretiroa hartu duelako.

Hala ere, esan daiteke, denda ixtea, zelanbait, ziklo itxiera ere izan dela, joan den mendearen hasiera samarretik gaur arte, bertan izan delako Ana Mari Leturiondoren familiak zuzendutako negozioren bat.

"Meltxorrenekua"

Denda baino lehenago, taberna izan zen Santa Anako lokala, urte luzez, gainera: Bar Melchor.

1932-33an zabaldu zuten Meltxor Leturiondo Oitxurrik eta Osumazpiko Estefania Agirregomezkortak, eta hauxe azaldu digu Ana Mari Leturiondok: "Eguneroko menuak, eta ezkontzetan, bataio, errefresko (horrela esaten zitzaien ezkondu aurreko agurrei) eta funeraletan bazkariak ematen genituen; ze, sasoi hartan, hiletak goizez izaten ziren, eta kanpoko baserrietatik etortzen zen jendea hemen geratzen zen bazkaltzen. Gainera, komentuko mojak bisitatzera familiak etortzen zirenean, haiek ere hemen bazkaltzen zuten. Meltxorreneko taberna handia zen: oraingo dendatik hasi eta gaur egun Edurtzarena den biltegiraino.



Lagun kuadrila Meltxorreneko tabernaren aurreko aldean, 1948an, despedida ospatzen.

Oraingo dendako hasierako zatia zen orduko tabernaren mostradorea, eta fondotik sartzen zen gure etxeko sukaldera eta orain arte biltegia zena, orduan jantokia zen".

Odolkiak, olibak...

Ana Marik dioenez, ama, Estefani zen Meltxorreneko sukaldaria: "Jaki goxoak prestatzen zituen, sukaldaritza tradizionala egiten zuen. Ezagunak ziren haren gisatuak, eta etxeetara ere eramaten zuten janaria. Bestalde, herriko

auzoetan jairen bat ospatzen zenean, hara ere eramaten zuten taberna, bertarako materiala idiekin garraiatuta: San Martzialera, Ezozira, San Andresera..."

Elkarrizketa entzuten zebilen herritar batek zera gaineratu du: "Eta Meltxorreneko olibak eta odolkiak ere benetan gozoak ziren". "Entzutetsua zen Estefani, bai, oso sukaldari ona zen", dio beste batek.

Plazentziatarren umorea

Meltxorrenekuak fama handia zuen. Horren erakusle da, izenburupean, joan den mendearen erdialdera Pedro Zelaiak argitaratu zuen pasadizo bilduma.

Ondoko orrialdeko pasadizoak erakusten du zelakoa zen garai hartan Plazentzian lantzen zen umore absurdo eta fina.

**EGUNEROKO MENUAK,
ETA EZKONTZA, BATAIO,
ERREFRESKO ETA
FUNERALETAN
BAZKARIAK**

"Oso eskertuta nago bezeroei"

ANA MARI ARIZAGA LETURIONDO ANA OINETAKO-DENDAKO UGAZABA

Erretiroa hartu berri du Ana Mari Arizaga saltzaileak, 35 urtean Santa Anan dendari jardun ostean.

Pozik hartu duzu erretiroa?

Bai. Badut gogoa beste gauza batzuk egiteko.

Zela hasi zinen dendari?

Familiako lokala zen. Hemen, Meltxorrenoko taberna egon zen lehenengo: *Bar Melchor*. Zabaldu zuten nire amak bost urte zituenean, 1932-33. urtean, eta 70eko hamarkadara arte izan zen taberna. Nik 1984an zabaldu nuen nire saltokia. Orduan taberna zenaren zati bat Pedro Etxanizek hartu zuen ile-apaindegia ipintzeko, eta amamak esan zidan: nahi baduzu beste lokala zuretako. Eta ipini nuen drogeria. Baina geroago, Ciriaco Laskurain Osumak denda itxi egin behar zuela-eta, familiakoek animatuta, hartu nuen Osumak saltzen zuen materiala ere.



Eta horrela hasi zinen oinetakoekin?

Haren hornitzaileen oinetakoak hartu nituen: etxeakoak, kalekoak, umeenak... denetik. Gero espezializatu nintzen, batez ere, etxerako eta pertsona nagusiendako oinetakoetan.

35 urtean zela aldatu da Soraluzen saltzaile izatea?

Askok. Merkataritza-zentro handiek eta Internetek asko kendu digute. Bestela, ni oso gustura ibili naiz dendari; hainbatendako gure dendak

bestelako zerbitzu batzuk ere ematen zituen. Adibidez, umeei esaten zieten gurasoek: Ez banago Ana Mariren dendara joan. Jaztetxea ere izan zen...

Jaztetxea? Hori zer da?

Baserritarrak kalera-eta etortzen zirenean eta arropaz aldatzeko beharra zutenean, hona etortzen ziren baserriko arropa kendu eta kalekoa janztera.

Ezusteko bat, behintzat, izan duzu saltokian, ezta?

Bai, justu aurren bi lapurreta saiakera izan ditut. Baina, zorionez, ez dut bestelako ezustekorik izan eta morosorik ere ez dut izan, oro har, oso bezero onak izan ditut.

Bai? Herriko bezeroak onak dira?

Bai, eskerrak emateko nago. Ze bolada txarrak bizi izan ditut gurasoekin, eta jendeak errespetatu egin nau, bazekitelako medikura joan behar nuela... errespetatu egiten ninduten, eta oso eskertuta nago, oso pozik, oso bezero onak izan dira, beti fidelak. Gainera, oso esker onekoak.

Plaentzia'ko matematikak

Sartu dira iru lagun Meltxor'en tabernara.

-Estefania- diñotse etxeakoandriari- ekarri iru bokadillo eta baso aundi bana arda baltzez beterik.

Kontua ordaintzerakuan, etxeakoandriak 23 peseta eskatu eutsezen.

Iru lagunak etziran konforme. Euren ustez, 21 edo 24 peseta

izan bear zan kontua. Baiña ona emen Estefaniaren erantzuna:

- Ara, mutillak, nik kontuak egiten jitsuadaz "uno con otro". Batakin irabazi eta bestiakin galdu, baiñan zuen kasuan be gauzia garbi dago. Begira, zuen kontua zazpiña peseta dok. Eta, orduan, papera eta lapitza, artuaz diñotse:

- Ara, siete por siete, 21 ditzuk eta dos de llevada 23.

Izan ere, argi ta garbi dago kontua. Beste gauza bat da, lagunak berdiñ ez ordaintzia, baiña "uno con otro" metoduakin, argi ikusten da matematikak egin daben aurrerakada izugarria.

Len planetxiatarrak ba zuen filosofo familia. Oñ matematikasen be fama aundira eldu dira.

Iturria: Pedro Zelaia, Umore giroan

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Amets Uzin
Apirilaren 3an, 6 urte. Zorionak!
Etxeko danon partez.



Natalia Rivero
Apirilaren 10ean, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako!
Leidyren partetik.



Maria Jesus Arrizabalaga
Apirilaren 17an, 74 urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Ekain Larrañaga
Apirilaren 21ean, 15 urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Aitor Agirre
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Zorionak bikote!
7 urte bete douez ya, segi jator eta alai. Askok maitxe zaitxuegu! Etxekoak.



Ghazi
Apirilaren 28an, 9 urte. Zorionak!
Etxekoak.




Ioritz Aizpirtare
Apirilaren 2an, 36 urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Andoni Calles
Apirilaren 7an, 43 urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Irati Ariznabarreta eta Iosune Jauregi
Zorionak!! Familixa guztian partez.



Anje ta Axlora Elortza
Apirilaren 17an, urtebete eta maiatzak 2an, 37 urte. Zorionak maittiok! Etxekoen partez.



Irati Oregi
Apirilaren 10ean, 7 urte. Zorionak polittori!
Etxekoen partez.



Nahia Larreategi
Apirilaren 11n, 5 urte. Zorionak neska handi!
Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Eider Varela
Apirilak 22an. Zorionak guapa!
Patxo handi bat bihotz-bihotzez!
Etxekuen partez.



Sabin Mendizabal
Apirilaren 11n, 40 urte. Zorionak!!

ESKELAK

I. URTEURRENA

Pakita Unanue Lete



2018ko apirilaren 17an hil zen, 89 urte zituela.

Urtebete zu barik eta egunero zurekin akordatzen.
Zurekin beti!

Etxekoak.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Jaiotakoak

Yilena Valdes Valdes




Batxilergorako aurrematrikula: maiatzaren 2tik 14ra

Ate irekiak: maiatzaren 2an, 18:00etan

AB Arte Batxilergoa **ZB** Zientzien Batxilergoa **GB** Giza Batxilergoa

Jardifeta 3 Eibar Tel.:943208349 Fax:943206048 E-mail:012055aa@hezkuntza.net



Sorabuzeko Kooperatiba Elkartea
1510etik zaharkitua

Arraindegia, janaria, erropak, etako tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenerdik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
Larunbatak: 09:30 - 11:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

TXURRUKA JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



JUAN MARI ARRANDEGIA

ARRANDEGIA
MORRUTU PLAZA - 943 75 24 48

Arrain treziak
Etxera eramateko zerbitzua
Eskargoen hartzea etxeko




Almar

Beapaindegia
Estetika
Soluzioak



Gabellin 4, Ibilua Tel.: 943 75 13 43 - 682 51 14 04

KM design

KIRU MUNTATZAK 943 76 99 85

kmuntatza@yaho.es Pol. Amilago 5
www.kmdesign.es BERGARA

- Disenatueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-arnakak
- Logelak
- Zonak
- Aleak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak:
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99




IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreforma - Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289



Belarrak *Larrendia eta betarrendia*

Loreak, etikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxera garbitzeko produktu ekologikoak

Etxera eramateko zerbitzua
Eskargoen egiten ditza
Tel.: 943 75 30 11



Erdi-Mailako Heziketa zikloak

Mekanizazioa

Administrarritza Kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

☉ "D eremuan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Tarteko Maila (B1) titulua lortzen dute."

Goi-Mailako Heziketa zikloak

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Administrazioa eta Finantzak

Mekatronika Industrialia

Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa

↳ (Ziklo hau Eskaintza Partzialean egiteko aukera: Zure kualifikazio maila hobetu nahi baduzu eta ohiko ordutegia bete ezin baduzu, heziketa ziklo hau moduluko egiteko aukera duzu).

☉ "D eremuan matrikulatutako ikasleek, heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute."

Goi-Mailako ziklo eleanitzak ingelesez ikasteko aukera.

Espezializazio Programa

Forjaketa Prozesuen Diseinua eta Ekoizpena
lanbide-espezializazioa

Aukera bat baino gehiago!

- Lanbide Heziketa DUALa: ikasketak ikastetxean eta enpresan txandakatuz burutzeko aukera.
- ETHAZI Metodologia: Erronketan oinarritutako Etekin Handiko Zikloak.
- Arratsaldez Ingeleseko errefortzu klaseak doan.
- Langile eta langabetuentzat ikastaroak.
- Eskaren araberrako formazioa neurritan.
- Erasmus+. Praktikak Europan egiteko aukera.
- Ikasle eta ikasle-ohientzat lan-poltsa zerbitzua.
- Orientazio zerbitzua.

www.maltuna.eus

Miguel Altuna Lanbide Heziketa

- Ibargarai 1, 20570 Bergara-

TEL.: 943 762 491 | 943 763 840 | info@maltuna.eus